
REKALDE ARETOKO HEZKUNTZA JARDUERA PROGRAMA 2017 / 09 – 2018 / 06



Ixone Sadaba
Sormen prozesuaren argazkia.



Bruce Davidson
Brooklyn Gang, New York, USA, 1959
35,5 x 28 cm
© Bruce Davidson /Magnum Photos

IXONE SADABA

2017ko urriaren 10etik 2018ko urtarrilaren 14ra

Ixone Sadabak (Bilbo, 1977) proposamen espezifiko bat egingo du Rekalde Aretorako. Erakusketa-espazioan bertan instalazio bat egingo du, eta, besteak beste, kontzeptu hauek hartuko ditu ardatz: gatazka, artxiboa eta dokumentua.

Erakusketarako espresuki egindako argazkiak, bideoak, instalazioak eta eskulturak aurkituko ditugu guztiz eraldaturiko espazio batean. Gatazkaren inguruan egingo dugu gogoeta eta hau dokumentatzeko erabiltzen diren prozesu ezberdinak aztertu. Aldi berean komunikabideek gatazkaren informazioaren hedapenean jokatzeko duten paperari buruz arituko gara.

BRUCE DAVIDSON

2018ko urtarrilaren 26tik maiatzaren 6ra

Rekalde Aretok, **Bruce Davidson** (Oak Park, Illinois, 1933) argazkilari iparamerikarraren gaur egunera arte egindako atzera begirako erakusketarik garrantzitsuen aurkezten du. Fundación MAPFREk antolatutako erakusketa berrehun bat argazki osatzen dute.

Erakusketa sailetan dago banaturik eta artistaren ibilbidea aurkezten du. Bere lehenengo lanetan gazteria erretratatu du, Harlem auzoko eguneroko bizitza irudietan laburbilduz. Estatu Batuetan 60.hamarkadan eskubide zibilen aldeko mugimenduak egindako borrokaren gertakarien dokumentuak aurkituko ditugu. Bere azkeneko lanetan paisaia jorratuko du eta hau erregistratzeko era ezberdinak.

Davidson-en argazkien bitartez Estatu Batuetako 60. hamarkadako gizarteari begiratuko diogu eta argazki dokumentalaren sorrera ezagutuko dugu.

ERTIBIL BIZKAIA 2018

2018ko maiatzaren 18tik uztailaren 1era

Bizkaiko Foru Aldundiko kultura sailak urtero antolatzen duen talde erakusketa ibiltarian gaur egungo sortzaile gazteen proposamenak aurkitu ahal izango ditugu. Erakusketak praktika artistiko berrien proposamen interesgarriak ezagutzeko aukera ematen dio publikoari.



PROPOSATURIKO JARDUERAK

● IRAKASLEENTZAKO BISITA GIDATUA *

2017ko urriaren 11an, 17:30etan.

2017-2018 kurtsorako erakusketetan azalduko diren funtsezko kontzeptuen eta proposaturiko ibilbideen aurkezpena egingo da.

● BISITA IRUZKINDUAK

Ostegunero (jaiegunak ezik) 18:00etan.

2017ko irailak 21etik aurrera.

● ESKOLA TALDEENTZAKO BISITA TAILERRAK *

LH, DBH, Batxilergoak eta beste kolektibo taldeei zuzendutako bisitak eta dinamikak erakusketan aurkezten diren gaiak eta teknikak sakonago aztertzeko. Talde bakoitzaren interes eta beharrak kontutan izanik diseinatzen ditugu jarduera guztiak. Deitu egiguzu eta neurrira egingo dizuegu proposamena.

● BISITA BEREZIAK HIZKUNTZAK LANTZEKO *

Euskaraz, ingelesez edo frantsesez. Arte garaikidearen bidez, ibilbide eta dinamika zehatzei esker, hizkuntza lantzeko modu berriak ezagutuko dituzue. Taldeentzako bideraturiko jarduera.

● BISITA BEREZIAK GIZARTE ESKLUSIO ARRISKUAN DAUDEN TALDEENTZAKO *

Erakusketa abiapuntutzat hartuta, bisita eta dinamika barneratzaile eta gogoetatsuak eskaintzen ditugu. Kolaborazio bereziekin jarraituko dugu, BIDESARI- Pastoral penitenciarria, AVIFES, Fundación Síndrome de Down eta aprendeTEA elkartearekin.

Arte garaikidea tresna barneratzaile moduan erabili nahi duten elkartei helarazten diogu eskaintza.

● ARTISTA TAILERRAK *

Artista gazte eta lokalek bideraturiko tailerrak. Arte batxilergoko ikasleentzat eta arte ederretako lehen mailtako ikasleentzat bideraturiko jarduera. Datak eta ordutegia finkatu gabe.

● ARTEA ETA MEMORIA TAILERRA *

Hezitzaile baten eskutik, ordu eta erdiko saioetan, erakusketak ezagutuko ditugu eta dinamika ezberdinen bidez, jarrera ohiturak sortuko ditugu gure eguneroko memoria hobetzeko asmoarekin.

60 urte baino gehiago dituzten pertsonentzako.

Saio berriak 2017ko urritik aurrera.

● ASTE BURUKO TAILERRAK *

🕒 10:15etik 11:30era, 3-6 urte.

🕒 12:00etik 13:30era, 7-11 urte.

Tailerrak antolatzen ditugu arte garaikideko proposamen berriak era ludiko eta didaktikoan erakutsiz.

● TAILERRA FAMILIAN *

4-11 urte bitartekoentzat, heldu bat edo bi lagun dutela.

🕒 11:00etik 13:00era

Jarduera hauek bereziki zuzenduta daude txikienek heldu bat lagun dutela egin ditzaten. Rekalde Aretoak gune bat eskaini nahi du familiak artearen bidez elkarreragina izan dezan.

* Jarduera guztiak **DOAN** dira eta ezin bestekoa da alde aurreko hitzordua.

Informazio gehiago jasotzeko edo tailer bat hitzartzeko, deitu ☎ **94 406 87 07 / 85 32** edo www.salarekalde.bizkaia.eus bisitatu.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera: 🕒 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:30

Igandeak eta jaiegunak: 🕒 10:00 - 14:00

Astelehenetan, itxita.